

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2009KO ABENDUA


## Euskal AEko industria-jarduera %2,7 jaitsi zen 2009ko abenduan

### *Euskal AEko industri produkzioa, azaroarekin alderatuta %0,4 igo zen*

Eustatek landutako datuen arabera, 2009ko abenduan, lan egutegiko termino homogeneoetan %2,7an murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2008ko hil beraren aldean. 2009 guztirako hazkunde-tasa metatua %-20,9koa izan zen, aurreko urtearen aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2009ko abenduan %0,4 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, azaroarekin alderatuta.

### Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



Iturria: Eustat

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2009ko abenduko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2008ko abenduaren aldean: Energiak urte arteko %0,4ko aldaketa positiboa izan zuen, Bitarteko ondasunak %0,1 igo ziren, Ekipo-ondasunak %10,9 jaitsi ziren; Kontsumo-ondasunek %3,7 egin zuten behera, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%-23,4) izandako jaitsieraren eraginez. Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek gora egin zuten (%4,1).

2009ko abenduan, azaroaren aldean, Energiak %5,9ko aldaketa positiboa izan zuen; Bitarteko ondasunak %1,7 igo ziren; Ekipo-ondasunak %2,6 jaitsi ziren; Kontsumo-ondasunek %3,6 egin zuten behera, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%-7,1) eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek (%-2,6) izandako jaitsieraren eraginez.

Lurralde historikoei dagokienez, abenduko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%8,6); Bizkaian %6,8 jaitsi eta Gipuzkoan %3,6 jaitsi. Hil arteko hazkunde-tasa positiboa izan da Araban, %1,8, eta Gipuzkoan, %0,5; Bizkaian %0,5 jaitsi da.

### 2009ko industri jardueraren balantzea

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen balantzean %20,9ko jaitsiera dugu 2.009an.

Industri sektore handiek aldakuntza negatiboak izan dituzte urteko metatuan. Bitarteko ondasunak %25,3 jaitsi dira, Ekipoko ondasunak %25,1, Energia %6,5 eta Kontsumoko ondasunak, oro har, %12,2 jaitsi. Horien baitan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %27,2 jaitsi dira, eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak, berriz, %6,5, 2008 urtearen aldean.

2006an metatutako aldakuntzak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %-20,9, Bizkaian %-19,9 hazi dira eta Araban %-23,1.

**Taula:2009ko Abendua. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).**

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	09Abe/08Abe	At/At-1 (1)	09Abe/09Aza	09Aza/09Urr
<b>Indize orokorra: Euskal AE</b>	<b>-2,7</b>	<b>-20,9</b>	<b>0,4</b>	<b>1,6</b>
Araba	8,6	-23,1	1,8	2,6
Bizkaia	-6,8	-19,9	-0,5	0,7
Gipuzkoa	-3,6	-20,9	0,5	1,9
<b>Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE</b>				
Kontsumo-ondasunak	-3,7	-12,2	-3,6	3,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-23,4	-27,2	-7,1	2,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,1	-6,5	-2,6	4,0
Ekipo-ondasunak	-10,9	-25,1	-2,6	2,9
Bitarteko ondasunak	0,1	-25,3	1,7	1,2
Energia	0,4	-6,5	5,9	-1,1

(1) t urteko urtarriletik azken hilera arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean

**Iturria: EUSTAT**

#### **Argibide gehiago nahi izanez gero:**

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)